



Denbora-



1 Lotu puntuak


Amaiurrek bi lagun berri egin ditu. Haien izenak zein hizkirekin hasten diren jakiteko, lotu puntuak, eta jakingo duzu.

Erantzunak: 1.-J eta F hizkiak, 4.-a eta e, 5.-c eta e.



2 Osatu irudia

Marrazki xeble samarra egin du Urtzik. Erdia eredu gisa hartuta, falta den zatia osatuko al zenuke?





3 Labirintoa

Eguraldi bero honekin loreak ihartzen hasiak dira. Malenek ureztatu egin nahi ditu, baina ez du topatzen lorea dagoen lekura doan bidea. Lagunduko al diozu?

- pasak

4 Itzalak

Paperezko irudiak egiten ikasi du Iratik; hona hemen txakur bat. Itzal hauetako bat Iratiren txakurrarena da. Zein, baina?




5 Bikiak

Franklin dortokak anaia bikia dauka: Rigoberto. Multzo honetatik zein dira Franklin eta Rigoberto?

Jolasa

Itsuentzako labirintoa

Udalekuetara joateko asmoa baduzue, hona hemen lagunekin aritzeko joko dibertigarri bat. Jolasean hasi aurretik, baina, ongi prestatu behar da jolasa.



- 1** Jolasean hasi aurretik, ibilbide bat prestatu behar da, zuhaitzez beteriko ingurune batean. Hala, bada, hartu soka, eta lotu zuhaitz batetik bestera, lurretik metro eta erdira.
- 2** Ezarri askotariko oztopoak ibilbidean zehar. Egunkari paperekin egindako bolak ezarriko ditugu, esaterako, ibilbidearen zati batean.
- 3** Ipini arropak eskegitzeko matxarda batzuk sokaren hainbat zatitan.

- 4** Ibilbidearen beste zati batean, ur txorrotada ederra botako dugu, lurraren zati hori lokaztu dadin.
- 5** Kartoizko hainbat kaxa ezarriko ditugu beste toki batean.
- 6** Sokaren zati batean, hainbat puxika zintzilikatuko ditugu.

- 7** Guztia behar bezala prestatua dagoenean, ibilbidearen hasierara eramango du antolatzaileak lehen jokalaria. Ibilbidea egingo duen lagunak begiak estalita eduki behar ditu. Sokari esku bakarrarekin eutsita, ibilbidea egin beharko du. Ibilbidearen gidaria haren alboan egongo da une oro, itsututa dagoen lagunak minik har ez dezan. Era berean, oztopoetara hurreratzen ari dela ohartaraziko dio gidariak.
- 8** Gainerako jokalariek itsututa dagoen laguna zirika dezakete: jokalaria musuzapi batekin aurpegia ukituz edo hanketan atximur txikiak eginez.
- 9** Une dibertigarri bat igarotzea da jokoaaren helburu nagusia; beraz, oso garrantzitsua da oztopo arriskutsuak ez jartzea eta itsututa dauden jokalaria behar baino gehiago ez beldurtzea. Gauzak ongi antolatzen badi-tuzue, primeran pasatuko duzue.